

Urango batzaraldiak Azkain-en izango dira eta otoitzez amaitu da batzaraldia.

Azkain'en, Ikastetxe batean, 1930'ko Azaroaren 27'an.

Euskaltzaindia batzar-agiriz bildu zan Azkue maipuru zala, Azkaingo eretore ta alkate jaunarekin. Beste euskaltzain-batzarkideak abek ziran: Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde (autatua) ta urgazletatik Dassanze, Lafitte eta Ormaetxea jaunak. Otoitzez asi zan.

I.—Elissalde jaunak, bere alkitik jaikirik, euskaltzain-saferako itzaldi edera irakuri zigun. Onen gaia: Euskaleriko landareak.

Itzaldi sakon, mamitsu ta apaña izan zala antxe bildu giñan euskaltzaiñok ongi dakigu. *Euskera* gure aldizkian argitaratuko da ta orduan bertagotik eta bañenkoiago nabaituko degu gure euskaltzainkide beñi ta maitearen lana.

II.—Lakonbe jaunak erantzun-itzaldia egin zuen ta auxe osoro ornitua generitzan: ain ederki ta gozoro azaldu zizkigun Elissalde jaunaren doaiak, bai itz neurki-lanetan, bai bestelako euskal-idazki askoren egile danez. Onen itzaldia ere *Euskera*-n azalduko zaigu ta antxe irakuriko degu gogo aundiagoz.

III.—Ondoren, urbildu zan Elissalde jauna maiera ta Azkue jaunak ezari zion lepotik bera euskaltzaiñaren edergailua. Beriala beste euskaltzaiñai besarkada eman zien, oitura danez, eta otoitzez amaitu zan batzaraldi ageri auxe.
